

2015-12-08

Apostu egingo genuke azken bost urteetan hamaika aldiz entzun duzuela hurrengoa: 'krisi' hitzak 'aukera' ere esan nahi duela txinatarrez, baietz? Hedabideetako arduradunek ere beste erremediorik ez dute izan teknologia berrien eskenatoki berrira moldatzeko aukeran apostu egitea baino. Medio alternatiboentzat esperimentazio garaia izan da.

Irratien kasua paradigmatikoa, gaur egun inoiz baina errazagoa da irrati bat internet bidez muntzea eta hori azaldu nahi izan digute [97Irratia](#), [Ttan-ttakun](#) eta [Irratia](#)ko lagunek, euskal irrati desberdinetatik etorritako entzuleekin batera (Arraio, Txapa, Lehiotikan, Bilbo Hiria, etab.).

97Irratiako lagunek irrati kontzeptu likido gisa azaldu dute, libre kontzeptuarekiko oso indefinitua, edonola biek lotutara azpimarratu dute. Software librean oinarritu dituzte beraien proposamenak. Irrati atzeko komunitatea errotzeko Telegram bezalako aplikazioetaz aritu dira. Audacity ere gomendatu dute soinu ediziorako daude aukera itsasoan (Internet DJ Control-ekin ere esperimentatzeko prest dabilta). Airtime irrati automatizatzailea erabiltzen dute parrila osatzeko, ardurak era deszentralizatu batean banatzeko erraminta bikaina. OGG erabiltzea ere gomendatu dute mugikor simple batekin unitate mugikor bat muntatzeko.

Kabi@n [@97irratia](#)koak berain proposamena aurkezten [#50DA @durangokoazoka pic.twitter.com/j0q1MMwgNT](#)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

Larrabetzutik iBasque aplikazioa aurkeztu dute euskarazko irratiak mugikorretik entzun ahal izateko. Irrati digitalaren diskurtsoa landu beharraz ere mintzatu dira, teknologia denak (FM, internet, etab.) okupatuz.

Irratigintzarako <https://t.co/RaKm7IYQNq> infrastrukturaren garrantzia azpimarratzen [@teketen #50DA pic.twitter.com/ZKjr6avcPK](#)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

Ttanttakuneko Beñatek egindako garapen teknologiko eta filosofiak azaldu ditu. Musikari eta estetikari garrantzi handia emanez. ARAS, RasFM eta beste hamaika erraminta Ttanttakun irratian nola txertatu dituzten ere azaldu digu. Harrigarria lortutako erraminten maila.

Irrati libreak laborategi bezala ere funtzionatzen du. [@jimakker @ttanttakun @kabiadurango @arrosasarea pic.twitter.com/pc7M7Y8vbK](#)

— txerren (@txerren) [December 7, 2015](#)

2015-12-08

Arratsaldean, hainbat hedabide nazional izan ditugu Kabi@n, beraien apostu teknologiko-digitalak aurkezten.

- [Gaztezulo](#): Aitor Abaroa zuzendariak aurkeztu du gazteentzako aldizkariaren webgune berria. Estetikoki zaindua eta paperezkoaren edukien gestio egokiago bat egiten duena.

Aitor [@abaroa37](#) <https://t.co/3T8MCJHKiQ> gunearen aurkezpen mundialean [@Gaztezulo](#)
[#50DA](#) [@durangokoazoka](#) <pic.twitter.com/pdBrqg16b3>

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

- [Argia](#): Lander Arbelaitez Argiako webgunearen atzean dagoen gogoeta azaldu digu. Kazetari guztien inplikazioa eta ahalduzkoa aipatu ditu webgunera begira, ezkerreko baloretara lotutako kanalak, blogariei tartea etab.

<https://t.co/jSsbzamCl8> webgunearen atzean dagoen gogoeta azaltzen [@larbelaitz](#) [@argia](#)
[#50DA](#) [@durangokoazoka](#) <pic.twitter.com/HNSpVyXMH2>

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

- [Berria](#)ko [Astekaria](#): Pello Urzelaik Astekaria aplikazioa aurkeztu du, medio handien (New York Times, The Economist) asteroko aplikazioetan inspiratua. Astekariak asteburuko irakurketa aukeratua eskaintzen dio erabiltzaileari. 1500 deskargen inguruan dabil honezkero 11. astean.

Astekaria aplikazioa aurkeztuko du orain [@berria](#)ko [@pellourzelai](#) |k [#50DA](#)
[@durangokoazoka](#) <pic.twitter.com/TsRkqnax6O>

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

- [Sustatu](#) eta [Mugikaria](#): Luistxo Fernadezek webgunea erreplikatzeko duten aplikazioen aurka hasi du hitzaldia (adib., El Español), eta Astekariaren inspirazio berdina duen Mugikaria aurkeztu du, kasu honetan, bi edizioekin egunero. Erabiltzaile kopuru txikia aitortu du, baina aplikazioaren prozesu automatizatua dela eta, aplikazioarekin aurrera egiteko apostua. Luistxoren hitzetan: “hurrengo aldaketa sakeleko telefonotik etorriko da interneten, eta hor egon behar da”.

El Español egurtuz hasi du hitzaldia [@luistxo](#) |k, [@Sustatu](#) eta Mugikariako triapak azalduko ditu [#50da](#) <pic.twitter.com/FVI0g8fjh6>

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

2015-12-08

- ✘ • [Ahotsa.info](#): Segio Labaienek Nafarroa Garaiko eta Iruñerriko azken urteetako jarraipen poliziala salatzen hasi du hitzaldia. Ahotsa.info-ren norabide multimedia azpimarratu du, bideotara zuzendua. Harpidetza eta komunitatea gogoratu ditu Ahotsaren giltza bezala. Agenda markatzeko hainbat kanpainaren adibideak jarri ditu ondoren.

Pituri eta <https://t.co/wNQTHztOju> aipamenak [@sergiolabayen](#) | ek <https://t.co/8aEWs20RvE> aurkezten [@AhotsaInfo #50da pic.twitter.com/etTbv0WOfz](#)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

- [Tokikom](#): Joxe Rojasek Tokikom aurkeztu du, eta bere lekua hedabideen mapa nazionalen. Ondoren, medio txikiek ahuldadeak batzeko ardatz diferenteak azaldu ditu, baita gai teknologikoetan: honezkero existitzen den web motore partekatua eta etorriko den mugikorreko aplikazioa.

Tokiko apostua [@joxe](#) | ren eskutik [@toki_kom #50da @durangokoazoka pic.twitter.com/lIlgRKopSDK](#)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

Eguna errematzeko, Xabier Landabideak mahaingurua gidatu du Hedabideen Etorbizunaren inguruan. Datozen erronkekin erretratoarekin hasi zen mahaingurua. Teknologia berriek suposatutako eraldaketarekin jarraitu zuen hizketaldiak. Segidan, Kalitatezko eta eduki duinen gaia irten zen mahai gainera. Eta bukatzeko EITB izan zuten mintzagai.

Luxuzko zazpikotea hedabideen etorkizunaren inguruan [#50da pic.twitter.com/7HzQLsY2qo](#)

— Kabi@ (@kabiadurango) [December 7, 2015](#)

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)